


ZIRKULU BATETIK BEGIRA BEGIRADEN ZIRKULU BATEAN



[Colectivo Los Ingrávidos, *The Sun Quartet, Part 4: Far from Ayotzinapa*, 2017 (fotograma)].

A2 eta Z aretoak, 2026ko urtarrilaren 16tik abuztuko 30era

Sammy Baloji, Loidgi Beltrame, Minia Biabiany, Edgar Cael (Fernando Pereira dos Santosekin elkarlanean), Lastenia Canayo (Pecon Quena), Raymonde Carasco, Colectivo Los Ingrávidos, Maya Deren, Juan Downey, Sheroanawe Hakihiiwe, Aida Harika, Edmar Tokorino & Roseane Yariana, Helena Producciones, Héctor Hyppolite, Morzaniel Iramari, Frantz Jacques «Guyodo», Karrabing Film Collective, Sarah Maldoror, Sueli Maxakali, Beatriz Santiago Muñoz, Rosalind Nashashibi, Deborah Stratman, Trinh T. Minh-ha eta Santiago Yahuarcani

Erakusketaren komisarioa Catalina Lozano Artium Museoaren komisarioburua da, Loidgi Beltrame artistarekin egindako elkarriketak eta trukeak laguntzarekin.

Hitzak #28 argitalpena: *Zirkulu batetik begira begiraden zirkulu batean / Mirar por un círculo en un círculo de miradas / Looking Through a Circle in a Circle of Looks*. Edizioak Lozanoren testu kuratoriala, filmen sinopsia eta erakusketan ikusgai dauden lanen fitxak biltzen ditu.

Inaugurazioa:

2026ko urtarrilaren 16an, 18:00etan | Topaketa Catalina Lozanorekin eta erakusketan parte hartu duten artistetako batzuekin

Argibide gehiago: www.artium.eus

ARTIUM MUSEOAK *ZIRKULU BATETIK BEGIRA BEGIRADEN ZIRKULTU BATEAN* ERAKUSKETA AURKEZTU DU

Testuinguru ezberdinetako hogeita artista eta kolektibok baino gehiagok hartu dute parte erakusketan

Etnografiaren eta mugimendudun irudiaren arteko harremanari buruz modu kritikoan hausnartzen duten praktika artistikoak aztertzen ditu proiektuak

Erakusketak pentsamendu dekolonialaren, zibernetikaren eta feminismoen eragina duten praktiken genealogia proposatzen du

Zirkulu batetik begira begiraden zirkulu batean Catalina Lozanok komisariatu du, Loidgi Beltrame artistarekin egindako elkarrizketak eta trukeak laguntzarekin

Artium Museoa *#Hitzak* argitalpen-sailaren ale berri bat argitaratu du erakusketaren harira

Erakusketaren inaugurazioaren esparruan, komisarioaren eta erakusketan parte hartu duten artistetako batzuen arteko topaketa izango da gaur arratsaldean museoan

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa, Artium Museoa, *Zirkulu batetik begirada begiraden zirkulu batean* erakusketa aurkeztu du [A2 eta Z aretoak, 2026ko abuztuaren 30era arte]. Lan honek modu kritikoan eta espekulatiboan aztertzen du mugimendudun irudiak bestetasunaren (modernitatetik eratorritako gailu epistemologiko osoa oinarri hartuta Mendebaldetik eraiki eta definitua) kontakizunaren eta irudikapenaren eraikuntzan izan duen papera, zinema etnografikoaren askotariko tradizioa osatzean. Erakusketa Catalina Lozanok komisariatu du, museoako komisarioburuak, Loidgi Beltrame artistarekin egindako elkarrizketak eta trukeak laguntzarekin. Erakusketaren harira, Artium Museoa *#Hitzak* argitalpen-sailaren ale berri bat argitaratu du, zeinak Lozanoren testu kuratoriala, filmen sinopsia eta erakusketan ikusgai dauden lanen fitxak biltzen dituen. Inaugurazioa dela eta, museoak topaketa bat antolatu du gaur arratsalderako, Catalina Lozanorekin eta erakusketan parte hartu duten artistetako batzuekin. Jarduera hau librea da, toki mugatuarekin.

Artium Museoa *Zirkulu batetik begira begiraden zirkulu batean* erakusketa aurkeztu du, modu kritikoan eta espekulatiboan mugimendudun irudiak bestetasunaren (modernitatetik eratorritako gailu epistemologiko osoa oinarri hartuta Mendebaldetik eraiki eta definitua) kontakizunaren eta irudikapenaren eraikuntzan duen papera aztertzen duen lana. Erakusketa-proiektua osatzen duten lanek askotan deseraiki egiten dituzte finkatutako metodologiak edo zalantzan jartzen dituzte irudiak ekoizteko teknologiak, baina kamera autoirudikapenaren zerbitzura jartzen dute orobat.

Maya Deren (Kiev, 1917 – New York, 1961) zinemagileak Haitin egindako lanaren inguruko hausnarketak hartzen ditu proiektuak abiapuntu, batetik, eta uhartera egin zituen bidaietan — vodouaren munduan sartuz— erregistratutako material filmikoa argitaratzeari uko egin izana, bestetik. Derenek *Divine Horsemen. The Living Gods of Haiti* (1954) liburuaren lehen orrialdeetan definitu zuen bere jarrera: «artista gisa hasi nintzen, errealitateko elementuak nire sormen-osotasunaren arabera artelan bihurtzeko manipulatu zituen norbait izateko asmoz; azkenean, bere osotasuna onartzera eta nire manipulazioak uztera behartu ninduen errealitate baten logika erregistratu nuen ahalik eta apaltasun eta zehaztasun handienarekin». Zinema-formatua alde batera utzi eta idazketaren alde egite horrek zenbait elementu ematen dizkigu, dokumentu-formatuetako irudikapen-eragiketa inplizituei buruzko hurbilketa kritikoa eraikitzen hasteko.

Erakusketaren izenburua Trinh T. Minh-ha (Hanoi, 1952) zinemagile eta teorialari feminista vietnamdarraren *Reassemblage* (1982) filmetik hartutako aipu bat da. Senegalen filmatua, *Reassemblage* beste errealitate bat irudikatzeko asmotik urruntzen da, berez, zinemaren teknologiaren bidez irudi batzuk filmatzeko ekintzari berari buruzko hausnartzeko, eta irudi horiei Trinh-en off-eko ahotsa gainjartzen zaie. Ez du errealitatearen azalpen antolatu eta objektibo bat eman nahi, eta bere asmoa ez da «inori buruz hitz egitea, inoren hurbiletik baizik». Hara zer dioen zinemagileak: «Bizitza ikusten dut niri begira. Zirkulu batetik begira nago begiraden zirkulu batean». Zirkulu horrek, kameraren leiarrak, filmatutako begiradak erregistratzen ditu, filmatzen ari denari begirada itzuliz; horrek guztiak agerian uzten du sortzen diren harreman-sareen konplexutasuna, subjektibotasun batzuen eta besteen arteko distantzia-oszilazioa tarteko, baina tarteko, orobat, desira ere.

Hala, erakusketak pentsamendu dekolonialaren, zibernetikaren eta feminismoen eragina jaso duten praktiken genealogia proposatzen du eta, gainera, mugimendudun irudiez gain, Vilem Flusserrek «irudi teknikoak» izena eman zien horien eta beste jardunbide artistiko batzuen artean proposatutako loturak ugaltzen dituzten beste lan batzuk biltzen ditu.

Hauek dira erakusketan parte hartu duten artistak eta kolektiboak: Sammy Baloji, Loidgi Beltrame, Minia Biabiany, Edgar Calel (Fernando Pereira dos Santosekin elkarlanean), Lastenia Canayo (Pecon Quena), Raymonde Carasco, Colectivo Los Ingrávidos, Maya Deren, Juan Downey, Sheroanawe Hakihiwe, Aida Harika, Edmar Tokorino & Roseane Yariana, Helena Producciones, Héctor Hyppolite, Morzaniel Iramari, Frantz Jacques «Guyodo», Karrabing Film Collective, Sarah Maldoror, Sueli Maxakali, Beatriz Santiago Muñoz, Rosalind Nashashibi, Deborah Stratman, Trinh T. Minh-ha eta Santiago Yahuarcani. Erakusketa Catalina Lozanok komisariatatu du, museoko komisarioburuak, Loidgi Beltrame artistarekin egindako elkarrizketak eta trukeak laguntzarekin.

Erakusketa dela eta, Artium Museoak *#Hitzak* argitalpen-seriearen ale berri bat argitaratu du. Bertan, komisarioaren testuaz gain, erakusketa osatzen duten filmen eta obren testu zabal bat eta fitxa komentatuak jasotzen dira.

Bestalde, erakusketaren inaugurazioaren esparruan, gaur, 18:00etan, komisarioaren eta erakusketan ordezkatuta dauden artista batzuen arteko topaketa irekia izango da museoan. Topaketak sarrera librekoa du lekua bete arte.

Erakusketak Artium Museoan

Bilduma Hau Colección. Oinarrizko mugimenduak (1950-2000). Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren bilduma.

Marwa Arsanios. Lurrak ez du jaberik izango. 2026ko apirilaren 12ra arte

Aurki

Juana Cima. Begirada disidente bat. Inaugurazioa: 2026ko urtarrilaren 28a